

EUSKARAZ BIZI

Bizi

jakitetik erabiltzera

Azkenaldian euskararen ezagutza gora egiten ari bada ere, erabilerak ez du joera bera hartu, eta guk horretan jarri nahi dugu indarra: erabileran, hain zuzen ere. Izan ere, ez dago euskaraz bizitzerik, erabili ezean. Euskaraz bizitzeko bitartekoak eskainiko dira ikastaro honetan, barnetegian nahiz barnetegitik kanpo.

Euskara

bada beste modurik

Euskara beste modu batera ikasteko aukera izango da Euskaraz Bizi ikastaroan; beti ere, euskaraz bizi eta gozatzea helburu izanda. Azterketa, ebaluazio eta egitura gramatikalez gain, bada euskaraz beste makina bat gauza ikasteko aukerarik. Euskaltegiko lau hormetatik irten eta euskara eta kultura bertatik bertara ezagutu nahi duenari euskaraz bizitzeko aukera eskaini nahi dio Maizpide barnetegiak.

Hiztunak

ikasteko eta irakasteko

Adin eta jatorri askotako ikasleak izan ditugu Maizpiden, eta izandako esperientziak aberasgarriak izan dira oso. Bistan da, ordea, guztiek ez dutela izaten euskara ikasteko motibazio edota arrazoi bera. Hori dela eta, titulua ateratzeko premiarik ez duen jendearentzat, euskaraz gehiago eta erosoago egin nahi duenarentzat egokitutako ikastaroa da honakoa: taldea zein den, haren ezaugarrietara egokitua.

Ikastaro honen helburuetako bat jendea euskararen bidez kulturara hurbiltzea da, eta, aldi berean, kulturaren bidez euskarara. Inoiz Maizpiden izan ez direnek bertako esperientzia ezagutu dezaten eta lehen ibilitakoentzat jarraipena izan dadin.